

## [Eusk/Cast] Ibon Fernandez Iradi y Manu Azkarate: concentraciones por los presos enfermos

---

MOVIMIENTO PRO AMNISTÍA Y CONTRA LA REPRESIÓN :: 16/12/2016

En los dos últimos días Francia nos ha dejado dos ejemplos de la crueldad con a que trata a los luchadores vascos.

Lannemezango espetxean (Frantzia) dago Ibon Fernandez Iradi eta esklerosi anizkoitza du. 13 urte daramatza preso. 2010eko abenduan agertu zitzaizkion eritasunaren lehen sintomak, eta 2013ko urtarrilean diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza. Fiskalaren eskaerari jarraiki, epaileak Ibon kartzelan mantentzea erabaki zuen atzo.

Manu Azkarate 1992an atera zen kartzelatik gaixotasun larria pairatzeagatik, sei urte preso igaro eta gero. 2004an atxilotu eta espetxeratu egin zuten berriz. Bost hilabete preso egon ondoren hirugarren gradua eskuratu zuen burututako gose, egarri eta medikazio gerbari esker. 2013an atxilotu zuten berriz eta egun berean aske utzi. Herenegun Polizia frantsesak atxilotu zuen beste behin ere Espainiako Estatuaren estradizio eskaera dela medio.

Azken bi egunetan Frantziak euskal borrokalarien aurka darabilen errepresio ankerraren bi adibide utzi dizkigu. Espainiar Estatuak ere gaixotasun larriak pairatzen dituzten beste 10 euskal preso politiko mantentzen ditu kartzelan, haietako batzuk bizitza eta heriotza banatzen dituen amildegiairean gainean soka mehe batez zintzilik dauzkalarik.

Espainiar eta frantziar Estatuak euskal militante politikoak damuturik eta garaiturik nahi ditu, eta horretarako kate-begi ahulenarekin tematzen dira, gaixorik daudenen bizitzekiko inolako errespeturik erakutsi gabe.

Egoera honen aurrean Euskal Herriari dagokio bere borrokalariak kartzelatik ateratzea, eta larritasun bereziaz gaixorik daudenak. Etsaiak presoak makurturik nahi baditu guk indarra emango diegu duintasunaren eredu direla agerian uzteko, etsaiak hilik nahi baditu, guk indar osoa jarriko dugu etxean ahalik eta lasterren eta bizirik egon daitezen.

Horregatik, Bizkaiko Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak preso gaixoen askatasunaren aldeko kontzentrazioak egingo ditu abenduaren 29an Basurtu, Gurutzeta eta Galdakaoko ospitaleen aurrean, arratsaldeko 7etatik aurrera.

Euskal Herrian, 2016ko abenduaren 16an.

---

Ibon Fernández Iradi se encuentra en la cárcel de Lannemezan

(Francia) y tiene esclerosis múltiple. Lleva 13 años preso. En 2010 se le apreciaron los primeros síntomas de la enfermedad y en 2013 le diagnosticaron esclerosis múltiple. El juez decidió ayer mantener en prisión a Ibon haciendo caso a la petición del fiscal.

Manu Azkarate salió de la cárcel en 1992 por sufrir una grave enfermedad y tras pasar seis años preso. En 2004 fue detenido y encarcelado nuevamente. Tras cinco meses en prisión logró el tercer grado gracias a la huelga de hambre, sed y medicación que llevó a cabo. En 2013 le volvieron a detener y fue liberado el mismo día. Antes de ayer la Policía francesa le detuvo de nuevo con motivo de la petición de extradición del Estado español.

En los dos últimos días Francia nos ha dejado dos ejemplos de la crueldad con a que trata a los luchadores vascos. También el Estado español mantiene en prisión a otros 10 presos políticos que sufren enfermedades graves, a algunos de los cuales mantiene colgando con una fina cuerda sobre el precipicio que separa la vida de la muerte.

Los Estados español y francés quieren a los militantes políticos vascos arrepentidos y vencidos, y para ello se ceban con el eslabón más débil de la cadena, mostrando nulo respeto por las vidas de quienes están enfermos.

Ante esta situación, es a Euskal herria a quien le corresponde sacar de la cárcel a sus luchadores y luchadoras, y con especial urgencia a quienes sufren enfermedades. Si los estados les quieren arrodillad@s nosotr@s les daremos fuerza para dejar claro que son ejemplo de dignidad, si el enemigo les quiere muertos, nosotr@s pondremos toda nuestra fuerza para que estén en casa y vivos los antes posible.

Por ello, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión de Bizkaia llevará a cabo concentraciones por la libertad de los presos enfermos el 29 de diciembre, a partir de las 7 de la tarde, frente a los hospitales de Basurto, Gurutzeta y Galdakao.

En Euskal Herria, a 16 de diciembre de 2016.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

---

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ibon-fernandez-iradi>